

**EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEKO
EUSKARAREN
IV. PLAN GIDARIA
2023-2027**

2024ko maiatza



Kudeaketa Plana

2026ko urtarrila

SARRERA

I. ARDATZA: Prestakuntza.....	5
II. ARDATZA: Ikerketa eta transferentzia.....	22
III. ARDATZA: Kultura eta gizartea.....	34
IV. ARDATZA: Pertsonak.....	51

Sarrera

EHUko Gobernu Kontseiluak 2024ko maiatzean onartu zuen EHUko Euskararen IV. Plan Gidaria (2023-2027) (IV. EPG) euskara-plan estrategikoa. Kudeaketa-plan honetan garatuko dira euskara-plan estrategikoan zehaztutako helburuak eta ekintzak erdiesteko ekimen, plan eta ekintza zehatzak.

IV. EPGak 6 erronka izan ditu ikusmiran helburuak definitzeko:

- a. Ikasleek euskaraz ikasteko aukera izatea: graduetako derrigorrezko eta hautazko ikasgaiak, masterrak, esperientzia-gelak, eta abar.
- b. Euskarazko kalitatezko irakaskuntza eskaintzea.
- c. EAEko sektore publiko guztiek bezala, herritarrek Administrazioarekin dituzten ahozko eta idatzizko harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatzea.
- d. Langileei euskaraz lan egitea ahalbidetzea, eta ikastegi, zerbitzu eta ataletan hizkuntza-ohituren aldaketa sustatzea.
- e. Euskara Planaren lidergoa zuzendaritza guztietara zabaltzea, nork bere ardurak har ditzan.
- f. Plantilla elebidunaren hazkundera ahalbidetzen duten neurrietan aurrera egitea.

IV. EPGan (2023-2027) UPV/EHUko Plan Estrategikoaren (2022-2025) 4 ardatzen arabera antolatu dira helburuak eta ekintzak:

1. ardatza: Prestakuntza
2. ardatza: Ikerketa eta transferentzia
3. ardatza: Kultura eta gizartea
4. ardatza: Pertsonak

Hortaz, kudeaketa-plana ere, egitura beraren arabera antolatu da, helburua baita jarduera eta plan xeheak plan estrategikotzat hartzen den IV. EPGarekin lerratzea. Kudeaketa-plan hau osatzeko zenbait alorretarako plan xeheagoak garatuko dira:

- a) Hizkuntza guztiak kontuan hartzen dituen irakaskuntza-plan integrala.
- b) Unibertsitateko kolektibo guztiei dagokien erabilera-plana.

I. ARDATZA

Prestakuntza

1.1. HELBURUA: Euskarazko irakaskuntzaren kalitatea bermatu.

EKINTZA

1.1.1. Irakasleen etengabeko prestakuntza linguistikorako eta euskarazko irakaskuntzaren praktika onetarako formazio-moduluak eta aholkularitza-zerbitzua eskaini (EHP-2020 egokitua) eta emaitzen jarraipena egin.

JARDUERA XEHEAK

- **Testuen zuzentasuna eta erregistro akademikoen bereizgarriak** (Ikastaro telematikoa asinkronoa, irakasle-ikertzaileek nahi duten unean egin ahal izateko): Ohiko gramatika-akatsak, euskara estandar zaindurako arauak (idatzirako eta ahozkorako).
- **AITZINATU:** Irakaskuntza-materialen hizkuntza-kalitatea hobetzeko laguntza. Orain arte, kanpoko enpresa batek hartu du ardura, baina bideak landu behar dira unibertsitateko kideek hartzeko ardura.
- **TSE programa:** Alorrez alorreko testu akademikoak eta terminologia ikusgai egiteko programa berraktibatu.
- **EHULKU sarea berraktibatu eta sendotu.**
- **UNESCOren garapen jasangarrirako 18. helburuaren esanahia lantzeko formazio-ekimenak landu** Munduko Hizkuntzen Ondarearen UNESCO Katedrarekin batera.
- **Baldintzak landu unibertsitateko kideek hizkuntza-formazioaren ardura hartu ahal izateko, baita sustapenaren ardura ere.** Izan ere, erregistro akademikoak unibertsitatearen komunitateko kide guztien artean (alorrez alorreko adituak eta hizkuntzalariak) landu behar ditugu.

1.1. HELBURUA: Euskarazko irakaskuntzaren kalitatea bermatu.

EKINTZA

1.1.2. Irakas-materialen eta ikasliburuen sorkuntzarako eta itzulpenetarako plangintzak egin eta gauzatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Euskarazko Ikasmaterialgintza eta Liburugintza sustatzeko deialdia** (Hizkuntza Zerbitzuak)
- **Euskaratzeko Eskuliburuak Proposatzeko Deialdian** (2023-2026) onartutako liburuak euskaratzen jarraitu.

1.1. HELBURUA: Euskarazko irakaskuntzaren kalitatea bermatu.

EKINTZA

1.1.3. Euskarazko corpusak eta sortzen diren edukien terminologia eskuragarri jarri euskarri digitalean.

Haien erabilera eta elikatzea sustatu eta jarraipena egin.

JARDUERA XEHEAK

- **Garaterm egitasmoaren barruan sortutako tresnak eta baliabideak eguneratu, garatu eta aberasten jarraitu:** Garaterm corpora, Erauzterm, TZOS, IZIBI-TZOS, HARTA/TAILA. (Garaterm euskara akademikoaren garapena, ikerketa eta irakaskuntza uztartzeko tresnak eta baliabideak diseinatzea, integratzea eta aberastea helburu duen egitasmoa da 2008an abian jarri zena: http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/eu).
- **Euskara Zerbitzuak sortutako baliabideak aberasten jarraitu:** EHUSkaratuak, Gaika, Azpidazki.
- **Garaterm egitasmoaren barruan eta Euskara Zerbitzuen barruan sortutako tresnak eta baliabideak elkarren artean integratzeko bideak jorratu.**
- **Testu akademikoen eta administratiboen idazketari laguntzeko tresna interaktiboa diseinatu** eta inplementatu.
- Tresna eta baliabideen eguneratze, garatze eta aberaste prozesuak **denboran jasangarriak izateko** beharrezkoak diren **hitzarmenak eta kontratuak** egin.
- **TESIKERen bilduta dauden tesiak Garaterm corpusean integratzeko urratsak** egin.
- **Terminologia Batzordearekin terminologia-lanak uztartzeko urratsak** egin. (Hitzarmena egin).
- **Euskaltzaindiarekin lexiko orokorra eta lexiko akademiko eta espezializatua harmonizatzen laguntzeko urratsak** egin. (Hitzarmena gaurkotu).
- **Euskorpora elikatzeke baldintzak eta hitzarmenak landu.**
- **Baldintzak landu unibertsitateko kideek terminologia-plangintzaren eta erregistro akademikoen deskripzioaren ardura hartu ahal izateko.** (IRIen Errektoreordetza, Eusko Jaurlaritza).

1.1. HELBURUA: Euskarazko irakaskuntzaren kalitatea bermatu.

EKINTZA

1.1.4. Irakasleen eta euskaraz ikasten ari diren ikasleen komunikazio-gaitasuna hobetzeko proiektuak sustatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Ikasleen euskarazko komunikazio-gaitasuna neurtzeko bideak inplementatu,** Hezkuntza Fakultateetako ikasleetatik hasita eta beste fakultateetara hedatzeko helburua ikusmiran. (Fakultateak, Eusko Jaurlaritza).
- Euskarazko komunikazio-gaitasun mugatuak dituzten ikasleei **hobetzeko ikastaroak edota bestelako baliabideak eskaini.**
- Ikasleek irakasleen jardunari buruz betetzen dituzten **inkestetan, hizkuntzen erabilerari eta gaitasunari buruzko galderak** gaineratu.
- **Irakasleei euskarazko komunikazio-gaitasuna hobetzeko formazioa** edota bestelako laguntza-baliabideak eskaini.
- Euskaraz ez dakiten irakasle-ikertzaile eta ikasleentzako oinarritzko **ulermena lantzeko ikastaroak** eskaini.

1.1. HELBURUA: Euskarazko irakaskuntzaren kalitatea bermatu.

EKINTZA

1.1.5. Graduan euskarazko ahozko zein idatzizko komunikazio akademikoa eta profesionala lantzen duten irakasgaiak gradu guztietan eskaini.

JARDUERA XEHEAK

- Graduen diseinurako araudiaren arabera, gradu guztietan eskaini behar dira EPGko irakasgaiak. **Aztertu ea graduren batean ez diren eskaintzen.** (Hutsune gehienak gradu bikoitzetan eta dualetan egongo direla suposa daiteke).
- Ikasketa-plan berriak egiten direnean edo dauden planak berritzen direnean, **EPGko irakasgaiak txertatzen direla zaindu.** (Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoretzaren txostena).
- **Aztertu EPGko irakasgaiak graduen planetan nola dauden txertatuta,** desegokitasunak desegiten joateko.
- III. EPGan irakasgai hauen ikasketa-planak berrikusi eta berrituko zirela esaten zen. Gradu gehienetan egokitu dira, baina funtsezkoak diren graduak **falta dira (hezkuntza, osasuna...).** **Gradu horietako irakasgaien planak egokitu behar dira, beren funtzioa bete dezaten.**

1.2. HELBURUA: Graduetako euskarazko irakas-eskaintza handitu.

EKINTZA

1.2.1. Graduan euskarazko eskaintza osoa ez duten ikastegiei osatzeko plangintza egin (ikus I. eta II. eranskinak).

JARDUERA XEHEAK

- **Gradu guztien eskaintzan eta ikasketa-planetan hizkuntza ofizialak eta ez-ofizialak nola dauden banatuta aztertu**, diagnosi zehatza izateko.
- **Diagnosia kontrastatu eta landu ikastegietako Euskara Batzordeekin, zuzendaritza-taldeekin eta sailekin.**
- IV. EPGaren 10. orrian aipatzen den helburua jomugan, alegia, "neurriak hartu beharko dira beste hizkuntzen kudeaketak euskararen normalizazio-prozesua ez oztopatzeko", **hizkuntza guztiak kontuan hartzen dituen hizkuntza-plan integrala egin** 26-27 ikasturteko irakaskuntza-plangintzaren abiapuntu modura erabiltzeko.
- **Ikastegiei graduz graduako plangintzak eta estrategiak aurkeztea eskatuko zaie**, 26-27 ikasturterako irakaskuntza-plangintza egiteko erabiliko direnak.

1.2. HELBURUA: Graduetako euskarazko irakas-eskaintza handitu.

EKINTZA

1.2.2. Praktika klinikoetan euskarazko eskaintza handitu Osakidetzarekin lankidetzan.

JARDUERA XEHEAK

- Praktika klinikoetan irakasle izan daitezkeen **mediku euskaldunak identifikatu.** (Osasun Komisionatuarekin batera).
- C1 mailaren egiaztagiria ez duten eta **irakasle izan litezkeen medikuentzako berariazko akreditazio-sistema prestatu.** (Osasun Komisionatuarekin batera).
- Irakaskuntzarako behar dituzten **euskarazko materialak prestatzen lagundu.**

1.2. HELBURUA: Graduetako euskarazko irakas-eskaintza handitu.

EKINTZA

1.2.3. Ikastegiek euskarazko lerroetan matrikulazioa sustatzeko estrategiak landu.

JARDUERA XEHEAK

- **EHUko ikasle guztien errolda egin, eta datu linguistiko eta soziolinguistikoak bildu, ikasleak euskarazko lerroetara erakartzeko estrategiak eta irakaskuntza-planak garatzeari begira.** (Graduko eta Digitalizaziorako Errektoretzarekin batera).
- Unibertsitateko komunitateko kideen **euskararekiko jarrerak, ideologiak eta diskurtsoak aztertzeke ikerketa** egin, sustapen-kanpainak egokiro diseinatzeari begira.
- Ikasturtea bukatu baino lehen eta matrikulazio-garaian **euskaraz matrikulatzeko kanpaina egin.**
- **GrALak, MALak eta doktoretza-tesiak euskaraz egiteko kanpainak egin.**
- “Euskarazko Doktoretza” aipamena sortu eta inplementatu (Doktorego Eskolarekin eta Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzarako Errektoreordetzarekin batera).

1.2. HELBURUA: Graduetako euskarazko irakas-eskaintza handitu.

EKINTZA

1.2.4. Errektoreordetzak ikastegiekin lankidetzan, EAEtik kanpoko ikasle euskaldunak erakartzeko ekimenak gauzatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Azoketan eta ate irekietan EHUk duen euskarazko irakaskuntza-eskaintza zabala balioan jarri.** (Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordetzarekin batera).
- **Nafarroako institutuetaiko ikasleei** azoken eta ate irekietako egunen berri eman, eta erakartzeko estrategiak landu.
- **Iparraldeko ikasleei EHUra etortzeko bideak errazteko estrategiak eta proiektuak landu, eta hitzarmen batean jaso:** koordinatu ikastegien aurkezpenak iparraldeko ikastegietan, iparraldeko ikasleek azoketan eta ate irekien ekitaldietan parte hartzeko bideak erraztu, Baxoko kalifikazioen baliozkotzean lagundu euskara irakasgaien kalifikazioak kontuan hartzeko... (Graduko eta Eraldaketa Digitalerako Errektoreordetzarekin eta Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordetzarekin batera).
- **Bordeleko eta Boiseko unibertsitateekin sinatutako hitzarmenak baliatu,** unibertsitate horietako ikasle euskaldunek mugikortasun-programetan parte hartu eta euskarazko irakasgaietan matrikulatu ahal izateko. (Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzarekin batera).

1.2. HELBURUA: Graduetako euskarazko irakas-eskaintza handitu.

EKINTZA

1.2.5. Ikastegiek hautazko irakasgaietan euskararen presentzia handitzeko estrategiak landu eta partekatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Gradu guztien eskaintzan eta ikasketa-planetan hizkuntza ofizialak eta ez-ofizialak nola dauden banatuta aztertu**, diagnosi zehatza izateko.
- **Diagnosia kontrastatu eta landu ikastegietako Euskara Batzordeekin, zuzendaritza-taldeekin eta sailekin.**
- **Aztertu estatuko eta Europako askotariko unibertsitateetan** hizkuntzak kudeatzeko plangintzarik baduten, eta plangintza horien elementurik adierazgarrienak, EHUren plangintza ahal den eta egokien oinarritzeari begira. (**Laguntza-taldea sortuko da** azterketa aurrera eramateko).
- IV. EPGaren 10. orrian aipatzen den helburua jomugan, alegia, "neurriak hartu beharko dira beste hizkuntzen kudeaketak euskararen normalizazio-prozesua ez oztopatzeko", **hizkuntza guztiak kontuan hartzen dituen hizkuntza-plan integrala egin** 26-27 ikasturteko irakaskuntza-plangintzaren abiapuntu modura erabiltzeko.

1.2. HELBURUA: Graduetako euskarazko irakas-eskaintza handitu.

EKINTZA

1.2.6. Graduako ikasleei kanpo-praktikak euskaraz egiteko aukera eskaintzen dieten enpresa eta erakundeen datu-basea elikatu eta ezagutarazi.

JARDUERA XEHEAK

- Graduako ikasleei kanpo-praktikak euskaraz egiteko aukera eskaintzen dieten enpresa eta erakundeen **datu-basea osatu eta zabalkundea egin**.
- Ikasleek **praktikak euskaraz egiteko kanpainak egin**.
- Euskarazko praktiken **jarraipena egin, kalitatea bermatzeko**.

1.2. HELBURUA: Graduetako euskarazko irakas-eskaintza handitu.

EKINTZA

1.2.7. Ikastegiek GRALak euskaraz egitea sustatu eta jarraipena egin.

JARDUERA XEHEAK

- **GrALak euskaraz egiteko kanpainak egin**, horien bidez euskara akademikoaren garapenari egiten zaion ekarpena nabarmenduz.
- UNESCOren garapen jasagarriko 18. helburuan aipatzen den **“eleaniztasuna” bermatzeko euskara babesteak duen garrantzia azpimarratzeko formazioa eta kanpainak** egin.
- **GrALak euskaraz zuzentzeari balioaren bat eman JARDUNen edo ebaluazio-tresnaren batean:** DOCENTIAZ, ikastegien plan estrategikoak edota Bikain bezalako programen adierazleetan. (IRIen Errektoreordetzarekin eta Graduako eta Eraldaketa Digitalerako Errektoreordetzarekin batera).
- **Euskaraz egiten diren GrALen kopuruaren jarraipena** egin.
- **Euskarazko GrALak Garaterm corpus akademikoan biltzeko estrategiak eta bideak** landu.

1.3. HELBURUA: Graduondoko eta Etengabe Prestakuntzaren arloko euskarazko irakas-eskaintza handitu.

EKINTZA

1.3.1. Masterretan euskarazko eskaintza sustatzeko estrategiak landu.

JARDUERA XEHEAK

- Masterretan euskaraz eta beste hizkuntzetan eskaintzen diren irakasgaiak aztertu, eta masterren batzorde akademikoekin eta sailekin aztertu irakasgaiak euskaraz eskaintzeko oztopoak eta bideragarritasunerako aukerak. (Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzarekin batera).
- UNESCOren garapen jasangarriko 18. helburuan aipatzen den **“eleaniztasuna” bermatzeko euskara babesteak duen garrantzia azpimarratzeko formazioa eta kanpainak** egin.

1.3. HELBURUA: Graduondoko eta Etengabe Prestakuntzaren arloko euskarazko irakas-eskaintza handitu.

EKINTZA

1.3.2. Euskaraz egiten diren master amaierako lanen kopurua handitu.

JARDUERA XEHEAK

- MALak euskaraz egiteko kanpainak egin.
- **Euskaraz egiten diren MALen kopuruen jarraipena** egin.
- **MALak euskaraz zuzentzeari balioaren bat eman JARDUNen edo ebaluazio-tresnaren batean:** DOCENTIAZ, ikastegien plan estrategikoak edota Bikain bezalako programen adierazleetan. (IRIen Errektoreordetzarekin eta Graduoko eta Eraldaketa Digitalerako Errektoreordetzarekin batera).
- Berariazko hizkuntza-prestakuntza eta zalantzak argitzeko kontsultagunea eskaini.Kontratuetan
- **Euskarazko MALak Garaterm corpus akademikoan biltzeko estrategiak eta bideak** landu.

1.3. HELBURUA: Graduondoko eta Etengabe Prestakuntzaren arloko euskarazko irakas-eskaintza handitu.

EKINTZA

1.3.3. Berezko ikasketetako euskarazko eskaintza zein den aztertu, handitzeko aukerak identifikatzeko.

JARDUERA XEHEAK

- Berezko ikasketetako **euskarazko eskaintza aztertu, eta euskararen presentzia handitzeko bideak landu.** (Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzarekin batera).
- **Euskararen normalizazioarekin lotuta beharrezkoak izan litezkeen eta eskaintzen ez diren berezko ikasketak diseinatu:** hizkuntza-plangintzarako eta normalkuntzarako teknikaria, terminologoa, itzultzaile espezializatua... (Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzarekin batera).

1.3. HELBURUA: Graduondoko eta Etengabe Prestakuntzaren arloko euskarazko irakas-eskaintza handitu.

EKINTZA

1.3.4. Esperientzia Geletako ikasleek euskaraz ikas dezaten estrategiak landu eta euskarazko eskaintza handitu.

JARDUERA XEHEAK

- Esperientzia Geletako euskarazko eskaintza aztertu.
- **Euskarazko eskaintzan parte hartzeko prest leudekeen ikasleak identifikatu eta kuantifikatu.** (Campusetako Errektoreordetzekin batera).
- **Euskarazko eskaintza bideragarri egin** lezaketen estrategiak landu: hiru campusetarako eskaintza erdipresentziala... (Campusetako Errektoreordetzekin batera).

II. ARDATZA

Ikerketa eta

transferentzia

2.1. HELBURUA: Euskaraz eginiko doktorego-tesien kopuru orokorra handitu.

EKINTZA

2.1.1. Doktorego-tesiak euskaraz egiteko beka-deialdia egin.

JARDUERA XEHEAK

- **Euskarazko tesia egiteko beka-deialdiak** egin, eta baremoak egokiro birdefinitu. (Ikerketa Errektoreordetzarekin batera).
- Tesia euskaraz egiteko beka lortzen duten **doktoregaien urtez urteko jarraipena egin**, tesia euskaraz egiten ari direla bermatzeko.

2.1. HELBURUA: Euskaraz eginiko doktorego-tesien kopuru orokorra handitu.

EKINTZA

2.1.2. Doktorego-tesia euskaraz egiten ari diren ikertzaileei hizkuntza-baliabideak eskaini (EHP-2020 egokitua).

JARDUERA XEHEAK

- **“Euskarazko doktorego” aipamena sortu eta lortzeko baldintzak egokiro definitu.** (Doktorego Eskolarekin eta Graduondoko eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordetzarekin batera).
- **Doktoregaiei berariazko hizkuntza-prestakuntza** programa eskaini, baita zalantzak argitzeko **berariazko kontsultagunea** ere.
- **“Euskarazko doktorego” aipamena lortu nahi duten ikasleen urteroko ebaluazio jarraitua egin,** prozesuan laguntzeko.

2.1. HELBURUA: Euskaraz eginiko doktorego-tesien kopuru orokorra handitu.

EKINTZA

2.1.3. Doktorego-tesien defentsarako interpretazio-zerbitzuak eskaintzen jarraitu.

JARDUERA XEHEAK

- Euskarazko doktoretza-tesietarako **interpretazio-zerbitzuetarako deialdia** egin.
- Doktoregaiek aurkezten dituzten **interpretazio-zerbitzuen fakturak kudeatu.**

2.1. HELBURUA: Euskaraz eginiko doktorego-tesien kopuru orokorra handitu.

EKINTZA

2.1.4. Euskaraz egindako doktore-tesiak saritu.

JARDUERA XEHEAK

- Euskarazko doktorego-tesien **Mitxelena sarien deialdia** egin Euskaltzaindiarekin batera.
- Mitxelena sarietara aurkezten diren tesiak **ebaluatzeko epaimahaia** sortu, eta ebaluazioa egin.
- **Mitxelena sarien banaketan parte hartu** ekimena balioan jartzeko, eta doktoregaiak animatzeko etorkizunean ere euskarazko tesiak egiteko eta sarien deialdira aurkezteko.

2.2. HELBURUA: Euskarazko aldizkari akademikoen eta bildumen kalitatea hobetu eta zabalkundea egin.

EKINTZA

2.2.1. Euskarazko aldizkari akademikoek eta bildumek bete beharreko kalitate-irizpideak zehaztu eta irizpide horiek betetzen dituzten aldizkarien zerrenda egin.

JARDUERA XEHEAK

- **Euskarazko aldizkari akademikoak eta bildumak finantzatzen jarraitu.**
- **Hizkuntza-kalitatea bermatzeko orrazketa-lanak eta txostenak egin.**
- **Aldizkari eta serieen hizkuntza-kalitaterako irizpideak zuzentzaile, gainbegiratzaile, zuzendari eta irakasleen artean partekatzeko sistemak abian jarri:** irakasleen jardunaren parte izan dadin landu, EHULKU sarea irizpideak eztabaidatzeko eta partekatzeko, ohiko estilo-irizpideen eta oker-desbideratzeen zerrendak eta material didaktikoak prestatu eta zabaltu unibertsitateko komunitatean. (IRIen Errektoreordetzarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera).
- **Argitalpenen orrazketa-lanak ikasketa eta hobekuntzarako bide izan daitezen** bideak sortu eta landu.

2.2. HELBURUA: Euskarazko aldizkari akademikoen eta bildumen kalitatea hobetu eta zabalkundea egin.

EKINTZA

2.2.2. Euskaraz argitaratzen diren aldizkari akademikoei Latindex katalogoaren irizpideak bete ditzaten laguntza eskaini.

JARDUERA XEHEAK

- **Argitalpen Zerbitzuak gomendioak eman aldizkarien argitalpen-batzordeei Latindex katalogoaren irizpideak betetzeko** urratsak ematen joan daitezten.

2.2. HELBURUA: Euskarazko aldizkari akademikoen eta bildumen kalitatea hobetu eta zabalkundea egin.

EKINTZA

2.2.3. Euskaraz argitaratzen diren bildumei edizio akademikoaren kalitatearen zigilua (CEA- APQ) lor dezaten laguntza eskaini.

JARDUERA XEHEAK

- **Argitalpen Zerbitzuak gomendioak eman eta lagundu aldizkariaren argitalpen-batzordeei edizio akademikoaren kalitatearen zigilua (CEA- APQ) lor dezaten.**

2.2. HELBURUA: Euskarazko aldizkari akademikoen eta bildumen kalitatea hobetu eta zabalkundea egin.

EKINTZA

2.2.3. Euskaraz argitaratzen diren bildumei edizio akademikoaren kalitatearen zigilua (CEA- APQ) lor dezaten laguntza eskaini.

JARDUERA XEHEAK

- **Argitalpen Zerbitzuak gomendioak eman eta lagundu aldizkarien argitalpen-batzordeei edizio akademikoaren kalitatearen zigilua (CEA- APQ) lor dezaten.**

2.3. HELBURUA: Euskarari buruz ikertzeko, datuak, baliabideak eta zerbitzuak hobetu eta zabalkundea egin.

EKINTZA

2.3.1. Euskarari buruzko ikerketa gizarteratzeko ahalegin berezia egin.

JARDUERA XEHEAK

- **Euskaraz egindako dibulgazio-lanak EHUko programetan kontuan hartzeko** urratsak egin: JARDUN, DOCENTIAZ, ikastegien adierazleak... (IRIen Errektoreordetzarekin batera).
- Zientzia gizarteratzeko ekimenak **transferentzia-seiurtekoetan kontuan hartu ahal izateko egiaztagiri egokiak egin**: dibulgazio-artikuluak, irratiedo telebista-saioak, sare sozialak, wikipedia... (Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoretzarekin batera).

2.3. HELBURUA: Euskarari buruz ikertzeko, datuak, baliabideak eta zerbitzuak hobetu eta zabalkundea egin.

EKINTZA

2.3.2. Euskarari buruzko ikerketa CLARIAH europar azpiegituran txertatu.

JARDUERA XEHEAK

- Kontuan hartu CLARIAH sarea koordinatzen duten irakasleen lana, **irakaskuntza-murrizketetan**.
- **EHUk euskara akademikoa monitorizatzeko eta aztertzeke tresnak eta baliabideak CLARIAH sarean** kontuan hartzeko bideak jorratu.

2.3. HELBURUA: Euskarari buruz ikertzeko, datuak, baliabideak eta zerbitzuak hobetu eta zabalkundea egin.

EKINTZA

2.3.3. Euskarari buruzko diziplinarteko ikerketa bultzatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Euskara Institutuaren egitura, jarduna eta oinarriak aztertu**, ikerketa-ildo teoriko desberdinak uztartzen dituzten hizkuntzalaritza aplikatuko lanak kokatzeko egokia izan daitekeen aztertzeko. (Ikerketa Errektoreordetzarekin batera).
- **Euskara Institutuaren jarduna lerratu EHUK behar dituen hizkuntzalaritza aplikatuko lanekin.**

III. ARDATZA

Kultura

eta

gizartea

3.1. HELBURUA: Unibertsitatearen euskararen erreferentzialtasuna indartu gizartean.

EKINTZA

3.1.1. Lankidetza-hitzarmenak eta proiektuak babestu euskara sustatzeko.

JARDUERA XEHEAK

- **Gizarteko eragileekiko lankidetza-hitzarmenak eta kontratuak berrikusi eta gaurkotu** egungo egoerekin eta beharrekin hobeto egokitzeko: Euskaltzaindia, Elhuyar, UEU, Eusko Ikaskuntza, Soziolinguistika Klusterra, Jakin...
- - **Hitzarmen berriak egin:** Etxepare lizeoa, Euskalgintzako Kontseilua ...

3.1. HELBURUA: Unibertsitatearen euskararen erreferentzialtasuna indartu gizartean.

EKINTZA

3.1.2. Doktore eta aditu euskaldunen datubasea elikatu eta ezagutarazi.

JARDUERA XEHEAK

- **Euskarazko tesiak kuantifikatzeko eta zerrendatzeko prozesua hobetu.**
- **Datubasea elikatu eta komunitate akademikoan ezagutarazi.**
- **- Tesiker datubasea EHUra ekartzeko egokitasuna eta baliabideak aztertu.** (Eusko Jaurlaritzaren HPSrekin eta Graduako eta Digitalizaziorako Errektoreordetzarekin batera).

3.1. HELBURUA: Unibertsitatearen euskararen erreferentzialtasuna indartu gizartean.

EKINTZA

3.1.3. Euskarazko kultur eskaintza campus ezberdinetako komunitateari eta gizarteari eskaini.

JARDUERA XEHEAK

- Campusetan euskarazko eta euskal kulturako ekimenak eta emanaldiak sustatu. (Campusetako errektoreordetzen eginkizuna).

3.1. HELBURUA: Unibertsitatearen euskararen erreferentzialtasuna indartu gizartean.

EKINTZA

3.1.4. UPV/EHUko ikasleen euskarazko formakuntza eredugarria izateko estrategiak garatu.

JARDUERA XEHEAK

- Irakaskuntzarako hizkuntza-praktika onak definitu, eta zabalkundea egin.
- Euskarazko irakaskuntza-materialen kalitatea bermatzeko programak abian jarri.
- Ikasle eta irakasleen eskura hizkuntza-baliabide eleaniztunak jarri: irakasgaien terminologia-hiztegi eleaniztunak, euskarazko materialak gaztelaniazko eta ingelesezko irakasgaietan ("euskara lagun" irakasgaiak)...
- Ikasleen iritziari buruzko inkestetan irakasleen hizkuntza-praktikei eta komunikazio-gaitasunari buruzko galderak gaineratu.
- Saitetan euskara-arduradunak izendatu, hizkuntza-praktika onak eta euskarazko irakaskuntzaren kalitatea zaindu dezaten.

3.2. Ikastegi eta zerbitzu-atalek Bikain Ziurtagiria lortzeko baliabideak ezarri.

EKINTZA

3.2.1. Ikastegiek eta zerbitzu-atalek, Bikain Ziurtagiria lantzen hasteko, beren euskara-batzordea edo talde eragilea aktibatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Erabilera-plana** prestatu **eta zabalkundea** egin.
- **Ikastegi eta zerbitzu-ataletan "euskara-arduradunak"** izendatu, planaren ezarpenaren eta betetze mailaren jarraipena egin dezaten: liderrak.
- - **Bikain Ziurtagiriaren berri eman**, eta baldintza egokiak zaizkienean **eska dezatela sustatu**.

3.2. Ikastegi eta zerbitzu-atalek Bikain Ziurtagiria lortzeko baliabideak ezarri.

EKINTZA

3.2.2. Ikastegiek eta zerbitzu-atalek Bikain Ziurtagiriaren ibilbidean parte hartzeko plangintza egin.

JARDUERA XEHEAK

- “Euskara-arduradunek” eta Euskara Batzordeek **Bikain ziurtagiria eskatzeko egokitzat hartzen dituzten ikastegi eta zerbitzu-atalen inbentarioa osatu.**

3.2. Ikastegi eta zerbitzu-atalek Bikain Ziurtagiria lortzeko baliabideak ezarri.

EKINTZA

3.2.3. Euskararen arloko Errektoreordetzatik Bikain Ziurtagiria lortzeko laguntza eskaini ikastegiei eta zerbitzu-atalei..

JARDUERA XEHEAK

- Euskara-arduradunek eta Euskara Batzordeek osatutako inbentarioaren arabera, **eskariak antolatu eta laguntzeko baliabideak eskaini.**

3.2. Ikastegi eta zerbitzu-atalek Bikain Ziurtagiria lortzeko baliabideak ezarri.

EKINTZA

3.2.4. Bikain Ziurtagiria lortu ondoren, ikastegi eta zerbitzuek ebaluazioan proposatutako hobekuntzak gauzatzeko neurriak hartu.

JARDUERA XEHEAK

- **Bikain Ziurtagiria Erabilera Planaren jarraipenarekin lerratu**, eta jarraipena egin.

3.2. Ikastegi eta zerbitzu-atalek Bikain Ziurtagiria lortzeko baliabideak ezarri.

EKINTZA

3.2.5. Bikain Ziurtagirian mailaren bat lortu duten ikastegiei eta zerbitzu-atalei egindako ahalegina aitortu.

JARDUERA XEHEAK

- Euskararen egunean edota bestelako ekitaldiren batean **aitorpena egin.**

3.3. Unibertsitatearen jardunean euskararen erabilera handitu.

EKINTZA

3.3.1. Euskara Errektoreordetzak hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak eguneratu eta esparru digitalera egokitu eta urtero zabalkundea egin.

JARDUERA XEHEAK

- **Erabilera Plan berria egin eta zabalkundea egin.**

3.3. Unibertsitatearen jardunean euskararen erabilera handitu.

EKINTZA

3.3.2. Ikastegi eta zerbitzu guztietan euskara zerbitzu-hizkuntza gisa bermatzeko estrategiak landu.

JARDUERA XEHEAK

- **"Euskara-arduradunak" (liderrak) izendatu ikastegietan eta zerbitzu-ataletan, funtzio hauek** edukiko dituztenak: erabilera-planaren zabalkundea egin, ikastegi edo zerbitzu-atalean betetzen diren eta betetzen ez diren puntuen informazioa bildu eta EHUko datubase orokorrean sartu, hobetzeko proposamenak egin eta beharrezko baliabideak eskatu.

3.3. Unibertsitatearen jardunean euskararen erabilera handitu.

EKINTZA

3.3.3. Baldintza egokiak dituzten ikastegi eta zerbitzu-ataletan euskara lan-hizkuntza bihurtu.

JARDUERA XEHEAK

- **"Euskara-arduradunak" (liderrak) izendatu ikastegietan eta zerbitzu-ataletan, funtzio hauek** edukiko dituztenak: erabilera-planaren zabalkundea egin, ikastegi edo zerbitzu-atalean betetzen diren eta betetzen ez diren puntuen informazioa bildu eta EHUko datubase orokorrean sartu, hobetzeko proposamenak egin eta beharrezko baliabideak eskatu...

3.3. Unibertsitatearen jardunean euskararen erabilera handitu.

EKINTZA

3.3.4. Unibertsitateak garatzen, erosten edo kontratatzen dituen aplikazio informatikoak euskaraz egotea bermatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Kontratueta euskararen presentzia bermatzen duten hizkuntza-klausulak eta ebaluazio-irizpideak txertatu (Aplikazio informatikoak funtsezko zerbitzuak baitira, euskararen erabileran eragin handia dutenak), eta horiek betetzen direla ziurtatzeko jarraipean egin. Erabilera Planaren irizpideak eta jarraipenerako adierazleak. (Graduko eta Digitalizaziorako Errektoreordetzarekin batera).**

3.3. Unibertsitatearen jardunean euskararen erabilera handitu.

EKINTZA

3.3.5. Digitalizazioaz arduratzen den zerbitzuak euskararen erabilera sustatzeko lanabes digitalen erabilera zabaltzeko eta adimen artifizialak eskaintzen dituen aukeren hausnarketa bultzatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Hizkuntza-baliabide digitalen zabalkundea eta formazioa eskaini.** (Graduko eta Digitalizaziorako Errektoreordetzarekin batera).

3.3. Unibertsitatearen jardunean euskararen erabilera handitu.

EKINTZA

3.3.6. Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzuak (EAZ) software korporatiboak euskaraz instalatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Hizkuntza-baliabide digitalen zabalkundea eta formazioa eskaini.** (Graduko eta Digitalizaziorako Errektoreordetzarekin batera).

3.3. Unibertsitatearen jardunean euskararen erabilera handitu.

EKINTZA

3.3.7. Indarrean dauden kontratu nagusiak (aurrekontuaren eta eragin-eremuaren arabera) eta zerbitzuen azpikontratazioak identifikatu eta hizkuntza-klausulak aztertu (egokiak diren, jarraipena egiten den...) eta horien betetze-mailaren jarraipena egin.

JARDUERA XEHEAK

- **Kontratuen hizkuntza-klausulak aztertzeko prozedura** ezarri.
- **Kontratuei buruzko ibiltorria zabaldu eta betetzen dela zaindu:** kontratuak bi hizkuntza ofizialetan, hizkuntza-klausulei buruzko txostena.

IV. ARDATZA

Pertsonak

4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.

EKINTZA

4.1.1. Langile berriei (IRI eta TEKAZEL) euskalduntzeko aukeren berri eman.

JARDUERA XEHEAK

- Kanpotik etorritako irakasle-ikertzaileei **EHUn euskarak duen garrantziaren berri eman: harrera lingusitikoa.**
- Kanpotik etorritako irakasle-ikertzaileei **euskara ikasteko dauden bideen** (euskaltegiak, HABEren laguntzak...) **berri eman** eta, beharrezkoa denean, **finantzatzen laguntzeko deialdiak** egin.
- Euskaraz ez dakiten unibertsitateko kideei **euskalduntze- eta ulermen-ikastaroak eskaini** campusetan, apurka-apurka unibertsitateko komunitate osoa euskararen inguruan trinkotzeko.
- **TEKAZELei euskara ikasteko ikastaroak eta lanaldi-murrizketak eskaini**, duten euskararen ezagutza hobetu ahal izateko, IVAPein batera.

4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.

EKINTZA

4.1.2. Meritu-lehiaketetan, langileen (TEKAZEL zein IRI) lanpostuetan ezarrita dagoen hizkuntza-eskakizunen irizpideen balorazioa egokitzeko bideak landu.

JARDUERA XEHEAK

- **Meritu-lehiaketetan euskararen ezagutzari ematen zaion puntuazioa definitu** 19/2024 dekretua kontuan hartuta.
- **Lanpostuen monografiak berrikusi eta gaurkotu,** eta lanpostu bakoitzaren **hizkuntza-eskakizunak birdefinitu** monografia gaurkotuen arabera.

4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.

EKINTZA

4.1.3. Euskarazko hizkuntza-eskakizuna daukaten lanpostuetarako lehiaketetan euskararen erabilera ezartzeko bideak aztertu.

JARDUERA XEHEAK

- **Euskararen erabilerari buruzko datu xeheak bildu.**
- **Erabilera-plangintza xehea prestatu.**
- Zerbitzu-unitateetan **"euskara-arduradun" lanpostu bana** definitu, eta lanpostuaren monografian horren zeregin zehatzak definitu.
- Euskararen **erabilera ahulena den unitateetan, "euskara-trebatzailea"** jarri, hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzeko.

4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.

EKINTZA

4.1.4. Euskara-eskakizunik ez duten IRlen euskara-ezagutzaren egoera ezagutu eta hobetzeko ekimenak bultzatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Sailaz sail IRlen hizkuntza-akreditazioei eta ezagutzari buruzko datuak jaso.**
- **Sailei kideak euskalduntzeko plangintza** egin dezaten eskatu.
- **Profil asimetrikoak eta C1 mailatik beherakoak aitortzeko bideak landu.**

4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.

EKINTZA

4.1.5. Irakasleen eta ikertzaileen etengabeko prestakuntza linguistikorako formazio-moduluak eta aholkularitza-zerbitzua eskaini eta jarraipena egin.

JARDUERA XEHEAK

- **EHULKU** sarea sortu eta zabalkundea egin.
- **Euskara akademikoa lantzeko ikastaroen eta mintegien eskaintza egin:** euskara estandarra eta akademikoa oinarrizko moduluak, AITZINATU programa egokitu, TSE programa gaurkotu eta indartu...
- **Ikasmaterialak, gidak eta argitalpenak gainbegiratzeko prozesuei izaera didaktikoa eman.**
- **Aholkularitza-zerbitzuak eta euskara akademikoari buruzko etengabeko formazioa aurrera eramateko EHUko IRIen sarea sortu:** bereziki EHK saileko IRIen enkarguan ikasleentzako formazioa ez ezik, IRIentzako aholkularitza, formazioa eta testuen orrazketa didaktikoa barne hartu. (IRIen Errektoreordetzarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera).
- **IRIei eskaintzen zaizkien denetariko ikastaro eta mintegietan euskararen presentzia bermatu:** eskaintzaren erditik gora euskaraz. (SAE/HELAZekin batera).
- - **IRIek euskarazko ikastaro eta mintegietan izena eman dezaten sustatu.**

4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.

EKINTZA

4.1.6. Ikertzaileak hizkuntza- eskakizunik gabeko kontratuetatik irakasle figurako kontratuetara igarotzen direnean, lanpostu berrirako euskara-maila egokia eskuratzeko baliabideak eta epemugak ezarri, sailen beharretara eta ikertzaileen ibilbideetara egokituz.

JARDUERA XEHEAK

- **Ikertzaileei EHUn euskarak duen garrantziaren berri eman.**
- **Kanpotik etorritako irakasle-ikertzaileei euskara ikasteko dauden bideen** (euskaltegiak, HABEren laguntzak...) **berri eman** eta, beharrezkoa denean, finantzatzen laguntzeko deialdiak egin.
- **Ikertzaileek euskara-akreditazioa lortzeko deialdiak diseinatu:** profil asimetrikoak, komunikazio akademikoa...
- **Irakasle finkoen lanpostu guztietan ezarri euskara-profil eta derrigortasun-data egokiak.** (IRIen Errektoreordetzarekin batera).

4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.

EKINTZA

4.1.7. TEKAZELen euskarazko liberazioak eta ikastaroak eskatzeko deialdiak gauzatu eta zabalkundea egin.

JARDUERA XEHEAK

- **TEKAZELei euskara ikasteko ikastaroak eta lanaldi-murrizketak eskaini**, duten euskararen ezagutza hobetu ahal izateko, IVAPein batera.

4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.

EKINTZA

4.1.8. TEKAZELen lanpostuen hizkuntza-eskakizunen mailak egokitu irizpideen arabera.

JARDUERA XEHEAK

- **Lanpostuen monografiak berrikusi eta gaurkotu,** eta lanpostu bakoitzaren **hizkuntza-eskakizunak birdefinitu** monografia gaurkotuen arabera. (Pertsonaleko Gerenteordetzarekin batera).

4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.

EKINTZA

4.1.9. TEKAZELen lanpostuei derrigortasun-datak esleitu ezarritako irizpideen arabera.

JARDUERA XEHEAK

- **RPTa aztertu, eta derrigortasun-datak ezarri** Administrazio Publikorako araudien arabera. (Pertsonaleko Gerenteordetzarekin batera).

4.1. Unibertsitateko langileak euskaldundu.

EKINTZA

4.1.10. TEKAZELei euskaraz eskaintako formakuntza gaztelaniazkoaren bezainbestekoa eman.

JARDUERA XEHEAK

- TEKAZELei eskaintzen zaizkien denetariko ikastaroen artean erdia behintzat euskaraz eskaintzea.
- Neurriak hartu hizkuntza-eskakizunak beteta dituzten TEKAZELek denetariko ikastaroak euskaraz egin ditzaten, euskararen ezagutza eta erabilera handitzeari begira.

4.2. Zerbitzu eta ikastegietan euskararen erabilera bultzatu.

EKINTZA

4.2.1. UPV/EHUko kideen artean Berbalagun moduko ekimenak bultzatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Ikasleen parte-hartze portfolioan** kontuan hartuko diren ekimenak eta deialdiak sartu, **eremu soziolinguistiko desberdinetako eta hizkuntza-gaitasun desberdinetako ikasleek elkarren arteko komunikazio-sareak** sor ditzaten. (Ikasleen eta Konpromiso Sozialeko Errektoreordetzarekin batera).
- **Sailen barruan hizkuntza-gaitasun baxuagoa duten kideei gaitasuna hobetzen laguntzeko eta hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzeko ekimenak eta estrategiak** diseinatu eta abian jarri.
- TEKAZELe kudeatutako **zerbitzu-unitateen artean euskararen erabilera baxuena dutenetan "trebatzaile" figurak** esleitu, hizkuntza-ohiturak aldatzen laguntzeko.

4.2. Zerbitzu eta ikastegietan euskararen erabilera bultzatu.

EKINTZA

4.2.2. Euskararen erabilera sustatzeko deialdia antolatu eta zabaldu.

JARDUERA XEHEAK

- **Biltzar, jardunaldi eta hitzaldi eleaniztunetan euskararen presentzia sustatzeko deialdiak egin:** interpretazioa, kartelak, zabalkundea...
- Argitalpen Zerbitzuak kudeatzen dituen **aldizkari guztietan laburpenak euskaraz ere** gaineratu beharra ezartzea.
- - **Ikastegietako Euskara Batzordeak indartu eta aktibatu** euskararen erabilera sustatzeko ekimenak diseinatu eta gauzatu ditzaten.

4.2. Zerbitzu eta ikastegietan euskararen erabilera bultzatu.

EKINTZA

4.2.3. Euskararen Egunaren atarian aitortza-ekitaldia antolatu.

JARDUERA XEHEAK

- **Saritzea merezi duten euskararen garapenerako eta erabilera sustatzeko ekimenen inbentarioa egin.**
- **Aitortza-ekitaldia antolatu eta ekimenik nabarietak** aukeratu horretarako.

4.2. Zerbitzu eta ikastegietan euskararen erabilera bultzatu.

EKINTZA

4.2.4. UPV/EHUK jasotzen dituen euskararen erabilerari buruzko salaketak kudeatu, dagozkien ikastegi eta zerbitzu-ataleko arduradunen erantzuna jaso ondoren.

JARDUERA XEHEAK

- **Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko salaketak aurkezten dituztenei ahal den eta azkarren erantzun**, eta "urraketa" edo "praktika desegokia" **egin duen pertsona edo atalera helarazi**, konponbideak jar dezan.
- **Salaketen eta konponbideen inbentarioa egin**, eta **kontuan hartu hizkuntza ofizialen eta ez-ofizialen erabilera-planean**, salatutakoak etorkizunean berriro ere gerta daitezen ekiditeko.